

ZINEMA

Deskribapena: Argitxu Camus, Ane Pedruzo eta Aitor Abaroa ageri dira zinemako eserlekuetan eserita.

Kike (off ahotsa): “Aizue, eta zuek euskerazko zein film dituzue gogoan?2

Ane: “Ba nik, bi nabarmenduko ditut, txikitan ikusitako “Ipar haizearen erronka” eta duela pare bat urte uste dut izan zela, zineman ikusi nuen “Gartxot”, seguru ikusia duzuela, gomendatzen dizuet, lagun batekin joan nintzen, atera ginen biok zinematik negar batean, oso istorio tristea da baina benetan gomendagarria eta aitortu behar dizuet nabilela azkenaldian piskat “friki” pelikula honekin eta beitu zein punturaino Suitzara jun izan garela lagun bat bixitatzera eta bukatu genuela denok “Gartxot” ikusten winterthurian.2

Argitxu: “Bai, ni ere “Gartxot”-en fan handia naiz, beraz ulertzen zaitut eta beste batzuk aipatzeko azken azken urteetan izan ditugula euskarazko filma oso oso onak kalitatezkoak, baten aipatzeko “Laurhogei egunean” seguraski ikusi zenuten eta bat oino hurbilago nigandik eta oso ona dena ere lehen luzemetraia xiberotarrez, beraz, behar dugu hori azpimarratu “Xora”, x o r a, zoazte ikustera, oso ona da, erosi dvd-a.”

Ane: “Akzioak dituzu pelikulan e!”

Aitor: “Nik be badaukat, entzun e hurbileko pelikula bat eta hori da “Amaren eskuak”. Han lekittarrez be itten zan eta azpimarratuko neuke arrazoi horregatik, ezta? Izan be uste dot ahalegin bat egin ebala ba euskalkiak naturalatasunez euskarazko zinian sartzeko. Eta gero euskal ziniak be historia asko ez dauko baina klasikotzat hartuko neukena ba “Aupa Etxebeste” moduko pelikula bat, ezta? “

Ane: “Ona, ona, baina bueno, jarrai dezagun gurea ikusten, ezta?”

Argitxu eta Aitor: “Bai, bai.”